



TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO

hitza

Igandea
2009-03-15

VII URTEA 1.654. ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Mikel Landa, Eric Pedrosa eta Garikoitz Bravo, sari banaketan. R. CALVO

ERIC PEDROSAK IRABAZI DU INSALUS TXIRRINDULARI PROBA

LIZARTZA Lizarte taldeko kataluniarra esprintean azkarrena izan zen; Mikel Landa iritsi zen bigarren, eta Garikoitz Bravo, berriz, hirugarren 4



Eguraldiak asko lagundu zuen atzokoan. ESTI EZEIZA

Jende ugari izan da Tolosan, Zuhaitzen azoka berezian 5

BERNARDO ATXAGA IDAZLEA

«Lur esanguratsua behar du literaturak; berez oso gutxi da»

ASTEASU Bidegabekeria eta zapalkuntzaz fikzioa nola egin, ari da bere azken nobelan 6-7

digitala
h
@

Astelehenean, martxoak 16, 16:30ean
KIKE AMONARRIZ
tolosarrarekin elkarrizketa digitala

Bidali zure galdera!

HITZAren erredakzioan izango da zuzenean zuen galderak erantzuteko. Aurrez ere zuen galderak bidal ditzakezue gure webgunean.

www.tolosaldekohitza.info webgunean



» **Uzturretik**

Iraitz Lizarraga

Martxoaren 8an telebistako esatariak, emakumea bera, Emakume Langilearen Nazioarteko Eguna ospatzen zela esan zuen: ni neu emakumea izanik, eta ustez langilea, ez nintzen oso identifikatua sentitu eta honek zer pentsatua eman zidan:

Batetik: ospatu esan zuen; Len-

goiarekin kontuz ibili beharra dago! «Los entierros, las reuniones, las manifestaciones...se celebran»; baina hiletak, bilerak, manifestazioak... ez dira ospatzen! Egun honen jatorria aztertuz gero, gutxi dago ospatzeko: 1857an Nueva Yorkeko lantegi bateko emakumeak protesta manifestazio bat egin omen zuten; data honen baitan 1908an Cotton Textile Factory lantegiko emakume talde batek greba bati ekin zion euren lan baldintzen hobekuntza eskatuz: soldata iguera eta lanorduen murrizketa ziren euren erreibindikazio nagusiak: Lantegiko nagusiek sute

bat piztu zuten grebarekin amaitu nahian eta bertan 129 emakume hil ziren. Gertaera hau kontuan izanik, gutxi dugu ospatzeko.

Ospatu ez; baina ahaztu ere ez: gauzak ez baitira horrenbeste aldatu: berdintasunerantz aurrerapen garrantzitsuak eman diren arren, oraindik bide asko dago egiteko: Baina nire zalantza ondorengo da: urtean behin, udaberriaren atarian, emakume guztiak lilaz jantzi, Telma y Louise ikusi eta herriko plazan manifestatu ondoren afaltzera joatearekin, zerbait lorzen dugu? Bai... borroka hau ez ahazteko funtzioa betetzen du

egun honek; baina, baita gobernariaren kontzientzia lasaitzeko: egun honetarako ekintzak proposatzera mugatzen baitira hauek askotan.

Honexegatik kostatzen zait ditxosozko egun honekin identifikatua sentitzea: borroka egun bat baino gehiago, ospakizun egun bat bihurtu baita: garaipenak normalean borroka irabazia dagoenean ospatzen dira eta ez dut uste inolaz ere geure kasua denik: borroka feminista anakronikoa dela sinestazari diguten arren, funtsean ez gara hain modernitoak: ez dakit zuenean, baina etxe gehienetako

lanak amatxoren esku geratzen dira oraindik, naiz eta amatxok etxetik kanpo ere lan egin; hori bai, normalean aitaxo baino gutxiago kobratuz eta ziur arazo gehiago izan zituela zu izan zintuenean, agian lanetik ere bota zuten ez baitira oso produktiboak haurdun dauden emakumeak. Herri txiki batean bizi arren, gauz kotzez jeisten naiz tabernara, eta ez hain zuzen ere alperkeriagatik; neska gazteek ezin omen dugu bakarrik ibili! ...en fin... eta horrela milaka adibide jarriko nituzke.

Afaltzera irten eta parranda botatzeko ez dugu Martxoaren 8ra arte itxaron behar: ez dezagun borroka desbideratu, oraindik asko baitago egiteko. Muxu bat emakume langile guzti!

K **Komikiak****Martin Mantxo**

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan
DOAN agertuko da

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

G Gutunak

ERE kaleratze eta soldata murrizketen aurka borrokak elkartu! (I)

Ekonomia kapitalistaren krisi sakon eta gogorra zabaltzen ari da mundu osoan milioika langile langabeziaren zulora botaz. Egoera honi «aurre egiteko» gobernuak hainbat plan onartu dituzte, baina orain arte, hartu dituzten neurri guztiak norabide berean joan dira: bilioika euro oparitu bankuei eta diru publikoarekin kapitalisten irabaziak bermatu.

Nolako krisia da?
Burgesiaren komunikabideek esan digute krisiaren arduradunak eskrupulurik gabeko bankariak eta merkatua erregulatze kontrol falta izan direla. Modu honetan, bereiztu egin nahi dituzte enpresari zintzoak eta gaiztoak, bankari arduraduratsuk eta abentura zaleak. Baina, gorde egin nahi diguten arren, kapitalismoaren motorra gutizia eta irabazi maximoen borroka dira. Marxismoak beti azaldu duen bezala, kapitalismoaren ekoizteko baliabideak esku pribatuaren daude eta aktibitate ekonomikoaren helburua ez da herritarren gehiengoaren beharrik auzetza, klase kapitalistaren irabaziak handitzea baizik. Horregatik, arazoa ez da norbanako batena edo bestearena, arazoa sistema ekonomiko bera da. Gehiegizko ekoizpenaren krisi globala da hau. Merkatua ez da gai ekoiztu den kotxe, etxe, merkantzia... kopurua kontsumitzeko. Honen ondorioz, ekoizteko indarren, industriaren eta milioika lanposturen suntsiketari gara ikusten. Kapitalismoa agerian uzten ari da bere izaera erreazionarioa.

Lehertu den burbuila espekulatiboa gobernu guztiek bultzatu zuten, hauek eskuinekoak edo sozialdemokratik izan. Kapitalismoaren logika onartuz, pelotazo

inmobiarioen festari eta burtsako espekulazioari babesa eman zioten, eta noski, zerbitzu eta enpresa publikoak pribatizatu dituzte monopolio handien negozioen onerako. Inongo gobernuak ez zuten arazorik izan lan merkatuan erreformak onartzeko, enplegu duina suntsituz, langileen lan baldintzak okertuz eta soldatak murriztuz. Globalizazioaren eta kompetentziaren izenean hartu zituzten gobernuak neurri hauek, eta zin egin zuten enplegua eta etorkizuna bermatuko zituztela. Baina, errealtateak erakutsi du, kapital handiaren eta banku handien irabaziak modu lotsagarrian hazteko bakarrik balio izan dutela.

Langileen aurkako patronalaren armak dira EREak.
Langabezia ikaragarri hazi da azkeneko hilabeteetan. Hego Euskal Herrian 200.000ra inguratu ari da langabetu kopurua. Datozen hilabeteetan okerrera egingo du egoerak, zorrei aurre egin ezin dieten eta hilabete bukaerara iristen ez diren milaka langile familiaren-tzat egoera dramatikoak eraginez.

Enpresariak, bankariak eta multinazionalak errekorrezko irabaziak pilatu dituzten bitartean gure soldatak murriztu eta lan baldintzak okertu egin dira. Orain, enpresen irabazi tasak erortzen hasi direnean, hau da, gutxiago ari dira irabazten eta ez irabaziak galtzen, ekoizpen kostuak murriztu nahi dituzte milaka langile kalera botaz. Gero eta gehiago diren EREak sektore guztiak ukitzen ari da izurrite baten moduan: auto-mozioa, telekomunikabideak, metala, papera, eraikuntza ERE hauek multinazionalen eta patronalaren instrumentu bihurtu dira, horrela euren

irabaziak mantentzeko. Zoritxarrez, agintari sindikal batzuk ERE hauek onartu dituzte enpresarien arrazoak "ulertuz". Baina jarrera hau erabateko akatsa da. EREen onartzeak langileen erantzun ahalmena murrizten dute eta abantaila ematen diete enpresari lanpostuak suntsitzeko.

Ibon Artola ('Euskal Herria Sozialista' aldizkariako kidea).

Zuhaitzaren Eguna

Krisialdian inoiz baino gehiago kezkatzen gara produktuen, zerbitzuen zein ekintza desberdinen balio ekonomikoaz. Azken urteotako joera honako hau da: kultura eta ondarearen balio ekonomiko integrala kalkulatzeko, ondare naturala bame. Adibide gisa, Aiako Harria Parke Naturaleko balioaren kalkulua har dezakegu.

Zuhaitz landaketarako hain proposak diren egun hauetan, eta martxoaren 14an, larunbatez, zuhaitz eguna eta Tolosan azoka berezia izan dela aprobetxatuz,

geure buruari galdetu geniezaioke zein den zuhaitz baten edota baso baten balioa eurotan.

Ekonomista klasikoek kalkulatu azkarra egingo lukete zur bolu-mena kontuan hartuta eta merkaturiko balioan oinarriturik. Hala ere, aditu hauek onartzen dute, era berean, kalkulu matematikoa hauetatik kanpo kontzeptu gehiago badaudela: *esternalitateak* deitzen dituztenak alegia. Argi dago zuhaitz bat ez dela zerrategietarako zura soilik, baizik espezie askoren gordeleku eta elikagai; humusa eta gure basoetako etorkizunerako lurra; amasten dugun oxigeno zati handi bat; atsedean hartzeko itzalpe ederra; eta zergatik ez, arteetarako inspirazio iturri. Zenbat balio du bada zuhaitz batek? Zein onura jasotzen ditugu zuhaitz batetik? Hauek dira Tolosan zuhaitz eguna dela eta prestatutako ekintzetako batean parte hartzen duten ikasleek kalean egin diezazkizuten galderetako batzuk.

Azken 15 urteotan bezalaxe, Sa-

maniego, Hirukide eta Laskorain ikastetxetako 10-12 urte bitarteko 100 bat neska mutilak TIZek (Tolosako Ingurumen zentroak) antolatutako ekintzetan hartu dute parte. Ekintza nagusia zuhaitzak landatzea izan da, Goroldiko lorazainen laguntzarekin, Iurrarendiko hego magalean. Gainera, hiritarrei inkestak egin dizkiete, errotero alkohola prestatu dute, hitz eta koloreekin jolastu dute, zuhaitz espezie desberdinen izek ikasi dituzte eta beste eskoletako neska-mutilak ezagutzeko aukera izan dute. Landaketa ofiziala Zabalarreta parkean izan da eguerdian.

Udal arduradunek parte hartu dute eta herritar guztiak zeuden gonbidatuta. Helburua berdegunea berreskuratzea izan da, zuhaitz handi batzuk erori ondorengo galerari aurre egitea, alegia.

Gainontzeko herritarrok Trianguloa plazan jarritako azokan landareak erosteko aukera izan dugu, eta zainketa egokirako beharrezko aholku orria ere eskatu ahal izan dugu.

Poza har dezakegu gainera ekonomikoki datu positibo bat daukalako: Gipuzkoan aberatsak gara zentzu honetan, Euskal Autonomia Erkidegoan zuhaitzutako azalera handiena baitauekagu, % 63a, hain zuzen. Azalera osoko % 54a baso mixto atlantiko da eta % 32a, berriz, pagadia; gainera, hostozabaleko baso natural trinkoetan dauzkagu. Basogintza alorrean Europako gune emankorrenetarikoa da, beti ere biodibertsitatearen kontserbazioaren eta produktzioaren arteko oreka zail hori defendatuz.

Tolosako Ingurumen Zentroa.



Iragarki laburrak

ALOKAIRUAN

■ **Alkiza.** Baserrira alokairuan. Txukun-txukuna; bi gela, sukalde ederra, egongela ta komuna; berritua. 3 solairu ditu; bi terraza 30 m² eta 20 m²koak. 5.000 m²ko lur saila etxearen aurrean. 1.000 euro. 619 34 93 85.

GALDUTAKOAK

■ **Zakurra.** Atzo goizean, 10:30ak aldera Terranova arrazako zakurra galdu zen, Zazpibide inguruan, Le-aburun. Lepoko gorria du. Aurkitu duenak dei dezala 617 33 25 24 (Mikel) zenbakira.

SALGAI

■ **Ukenduia.** Fistula edota erredura arazoak, zirujia gabe. Dena naturala. Deitu konpromezu gabe. 618 62 83 11. garitxu70@hotmail.com.

BERRI ON BAT DUGU
ZURE ETXETRESNA ELEKTRIKOENTZAT

TOLOSALDEAN
Zerbitzu Ofizial Berria
BSH Taldeko Markentzat

Interservice
Ubarburu pasealekua, 81-
Pol. Ind. 27 • 20014 Martutene

902 351 352

BOSCH
SIEMENS
Bosny
LYNXC
ufesa

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Benito Lertxundi
TOLOSA

Apirilak
3
ostirala
20:30

■ **Ibarrako Xepa Kirol Elkarteak** ■

2.009ko urteko batzarrean 7 bazkide berriren sarrera onartu zuen. Norbait interesaturik balego jarri dadila harremanetan honako telefono hauetan:

656 77 19 56 • 679 234 496

Manex Castroren familiak ez daki non izan zuten inkomunikatuta

Villabona » Amnistiaren Aldeko Mugimenduak ostiraleko berrien haritik zenbait kontu argitu ditu.

ERREDAKZIOA

Villabonako Amnistiaren Aldeko Mugimenduak esan duenez, «gezurra da Manex Castroren familiak eta abokatuek jakin duten inkomunikatuta izan duten denboran non izan duten. Gaur da eguna Manex non izan zuten ez dakigula». Izan ere, ostiralean Ertzaintzak Audientzia Nazionalera gazte billabonatarraren atxiloketa eta inkomunikazio garaiko bideoak igorri zituela zabaldu zen komunikabideetan, hartara Castrok tratua ona jaso zuela frogatzeko.

Horiek horrela, «Ertzaintzak martxoaren lehen hainbeste saldu duen protokoloa ez aplikatzea» erabaki zuela salatu dute eta «arrazoi politikoengatik» izan dela gaineratu dute. Mikel Garmendia gaztearen inguruan ere bere abokatuak Madrilen deklaratuko zuenik ere ez zekiela azpimarratu du Villabonako Amnistiaren Aldeko Mugimenduak. «Beraz, nola da posible protokoloa bete dutela esatea? protokoloaren oinarriko puntua senideak etengabe informatuta egotea bada eta bete ez badute?», gaineratu du.

Era berean, pasa den hilaren 12an AMMk eskainitako prentsaurrekoaren ondotik, non Manex Castro torturatu izana salatu zuten, Miren Azkarate Eusko Jaurlaritzako bozeramaileak egin adierazpenak salatu ditu: «Azkaratek, EAEko poliziaren eldunak, bideo bat dutela esan zuen. Bideo hori Villabonako plazan jarri dezala eskatzen diogu, herritar guztien aurrean gezuratu dezala Manexek bere herrikide guztiei esan diguna gezurra dela eta hala bada sinetsiko diogu, bitartean gezurretan ari da eta nekez konbentzituko ditu billabonatarrak Ertzaintza torturatzailerak ez denik». Herrian «Ertzaintzaren jazarpena» ez dela amaitsu ere salatu du AMMk.



Alberdi garaile rallysprintean

TOLOSA » Iñaki Alberdik irabazi zuen atzo X. Ikasberri Rallysprinta. Azpeitiko Gazte bidegurutzeari Errezil-Bidania artean jokatu zen lasterketa eta 81 auto gidarik hartu zuten parte. 15:30ean hasi zen proba, eta behetik gora izan zen lasterketa. 13,5 kilometroko ibilbidea hiru aldiz egin behar izan zuten auto gidariek eta kopilotoek. R. CALVO



Euskal Herriko igerilari onenak

TOLOSA » Tolosako Usabal kiroldegia girotuta zegoen atzo. Izan ere, atzo eta gaur bitartean Euskal Herriko junior eta absolutu mailako igeriketa Txapelketa jokatu ari dira bertan eta ikusle asko gerturatu zen kiroldegira. Txapelketa dela-eta igerilekua itxita egongo da baita gaurkoan ere, nahiz eta hidromasaien saila irekita dagoen. R. CALVO

Eric Pedrosa Insalus Sarian azkarrena

Herria edo gaia » Bigarren postua Mikel Landak eskuratu zuen eta hirugarrena, aldiz, Garikoitz Bravok.

ERREDAKZIOA

XXI. Insalus Saria afizionatu mailako txirringulari proba ederra izan zen atzokoan Lizartzan. 15:30ean atera ziren herriatik 16 taldeetan banatutako 105 txirringulariak eta 104 kilometro egin zituzten bi ordu eta erdi inguruko proban.

Azken itzuliak izan ziren gogorrenak, izan ere, Altzoko gaina hiru aldiz eta Leaburuko behin igo behar izan zuten txirringulariek azken kilometroetan.

Azken kilometroetan seikote bat izan zen nagusi, baina azkenean helmugara iristerakoan bost izan ziren esprintean lehiatu ziren txirringulariak. Esprint lehiatua izan zen eta gutxigatik irabazi zuen azkenean Lizarte taldeko Eric Pedrosa gazte kataluniarrek,



Landa, Pedrosa eta Bravo izan dira aurtengo hiru irabazleak. R. CALVO

Dani Pedrosa gidariaren anaia dena, hain justu ere. Bigarren postua, aldiz, Naturgas Energiako Mikel Landarentzat izan zen eta Caja Ruraleko Garikoitz Bravok egin zuen hirugarren.

Mendiko Saria ere izaten da Insalus proban eta honakoan Marcos Miguel izan zen irabazlea, izan

ere Miguelek Altzoko gainan bizidiz izan zen lehena eta baita Leaburukoan ere.

Aipatu behar da zentzu honetan, Marcos Miguel eta Alberto Gonzalez izan zirela nagusi lehen lasterketako lehen zatian. 36 kilometroan, Altzoko gainan; 71 kilometroan, Altzon baita; eta 81 kilo-

metroan, Leaburur, izan ziren nagusi Miguel eta Gonzalez txirringulari gazteak.

Bestalde, Seguros Bilbao taldea nagusitu zen aurtengo Insalus Sarian eta honek ere jaso zuen esker ona sari banaketan.

Gogoratu behar da iaizko irabazleak Noel Martin izan zela.



Helmugara iritsitako lehen boskoteak esprint ederra egin zuen, baina Pedrosa gailendu zen azkenean. R. CALVO

ORUE
erretegia

Arrain eta haragiak parilan

Sanmaniego kalea, 3 • 20400 Tolosa
Telefonoa 943 65 19 11

Lorategiaren itxura hartu zuen atzo Triangulo plazak

Ekonomia » Abereak eta landareak protagonista izan ziren; batetik, zuhaitz eguna errepikatu zen eta bestetik, VII. Biga Enkantea.

ESTI EZEIZA

Udaberrian lorategi batek duen itxura hartu zuen atzo goizean Triangulo plazak. Urtero bezala, otsailean ospatu zen Zuhaitz eguna, baina eguraldi kaxkarra egin zuen, eta antolatzaileak, saltzaileak, nahiz landarezaleak ez ziren gustura geratu. Ondorioz, berriro egitea erabaki zuten, eta atzokoan, eguzkia eta giro ona izan zen nagusi.

Kolore biziz jantzi zen plaza, eta jende ugari hurbildu zen ikustera nahiz erostera. 13 mintegi etorri ziren guztira. Hauek hainbat eratako produktuak ekarri zituzten: fruitu arbolak, baso landareak, landare usaingarriak...

Landare ekologikoen eskaintza ere bai, oraingoan

Joan den hilean egin zen azokara etorri ziren estreinakoz Zarauzko Blasenea mintegikoak. Hau da Euskal Autonomia Erkidegoan produktu ekologikoen zigilua daraman mintegi bakarra. Duela hiru urte hasi ziren lan honetan, eta ekoizle gazteak dira.

Basoko fruituak ematen dituzten zuhaixkak nahiz baratzeko landareak ekarri zituzten atzo To-

losara. Denera 30 espezie. Tartean: Andere mahatsak, Arakatzak eta arantzik gabeko masustak.

Ereiten dituzten haziak ekologikoak dira, hau da, inolako pozoien edo produktu toxikorik erabili ez den landare eta lursail batetik datoz. Bestalde, erabiltzen dituzten sustratu eta lurra ekologikoak dira, ez baitute, inolako ongari sintetiko eta kimikorik erabiltzen. Naturak eskaintzen dituen produktuen bitartez lantzen dituzte, esaterako, zizare humusarekin, kompostarekin, landareen saldekin eta harrapakari naturalekin.

Zarauzko Blasenea mintegikoen hitzetan, «landare hauek erostean, jendeak badaki, propietate guztiekin datorrela, gure osasuna bultzatzen dutela eta ingurugiro aldetik segurtasuna eta iraunkortasuna eskaintzen dela». Bestalde, azpimarratu zuten, mintegi ekologiko bat izateak ingurumenaren ezagutza handiagoa izatera behar-tzen dituela.

Ferialekuan, Biga enkantea

Lehendabiziko sektorea izan zen atzo goizean protagonista Tolosan. Hala, Triangulo plazan Zuhaitzen azoka egiten zen bitartean, Ferialekuan VII. Biga Enkantea egin zen.

Pirenaiko, Limusin eta Blonda arrazako bigak jarri zituzten salgai. Dena den, baserriarrek bizi duten krisiaren adierazle izan zen atzoko enkantea. Izan ere, aurreko urteetan baino abere gutxiago atera zi-

ren salmentara. Bertara hurbildu ziren baserriarrek aipatzen zuten, «gero eta baserriar gutxiago gaude, eta hori nabaritzen da gaurko bezalako ekitaldietan».

Goizean goiz eraman zituzten abeltzainek beraien bigak eta hainbat lagun hurbildu ziren ikustera. Aipatzekoa da, egun, gizonak direla arlo honekiko interesa agertzen dutenak, Ferialekuan zeudenen %95a halabaitzen.



Aurreko urteetan baino biga gutxiago atera ziren enkantera atzo. E. EZEIZA



Hamahiru mintegi hartu zuten parte aurtan bigarren ospatutako Zuhaitz Egunean. E. EZEIZA

Pototxotx taldeak irabazi du BertsolarHITZAren bigarren saioa

Kultura » Ibarrako bertso eskolakoak Altzoko Elordi Elkartekoak baino hobeto aritu ziren; 3-2 irabazi zuten Pototxotxekoak.

ERREDAKZIOA

70 pertsona inguruk hartu zuen parte ostiralean Alizon izandako BertsolarHITZAren bigarren saioan.

Giro ona izan zen, aurreko astean Ibarrako Gaztetxean izandako saioan bezala, eta azkenean Ibarrako Pototxotx bertso eskolako gazteak gailendu ziren. Epaimahaiekoen hiru bozka jaso zituzten eta Altzoko Elordi Elkartekoak, berriz, bi.

Lehen saioan Alegia garaile

Gogoratu behar da, era berean, lehen saioan Ibarrakoak eta Alegia-



Ibarrako bertsolariak izan ziren nagusi herenegungo saioan. HITZA

koak aritu zirela, eta Alegiakoek irabazi zutela 4-1eko emaitza eskuratu.

Pototxotxetik Mixer, Xabi Lasa, Iker Aranzegi eta Atxu izan ziren bertsoetan ostiralean eta Altzotik, aldiz, Iñigo Gorostizu *Etxeorde*, Iñaki Olanu, Adur Gorostidi eta

Iker Laso izan ziren desafioan. Aurkezle zein gai jartzaile lanetan Jexux Murua aritu zen.

BertsolarHITZAren hirugarren saioa hamabost egun barru izango da eta Altzoren eta Alegiaren artekoa izango da erronka. Saioa Alegian izango da.



Alegiko kabitik Asteasuko plazara

ALEGIA » Bertsolaritzaren asteburu izan da hau. Beterriko txapelketaz eta BertsolarHITZAko saioaz gain, Txolarre irratiak antolatutako bertso bazkaria izan baitzen atzo Alegian. Egungo Gipuzkoako bertsolari txapelketako garailea eta finalistetako bat aritu ziren nor baino nor bertsoetan: Aitor Mendiluze eta Iker Zubeldia. Atzoko ekitaldia Kabitik Plazara ekimenaren baitan dago. Hala, Txolarrek antolatutako jarduerekin jarraituz, gaur herri kirol erakustaldia izango da Asteasuko pilotalekuan, 17:30etik aurrera. ESTI EZEIZA

E Elkarrizketa

BERNARDO ATXAGA › Idazlea

«Literatura oso gutxi da berez, lur esanguratsua behar du»

Asteasu»

Bidegabekeriak eta zapalkuntzak fikzioa nola egin, kezka hori dago 'Zazpi etxe Frantzia' (Pamiela) Bernardo Atxagaren azken nobelaren atzean.

ALBERTO BARANDIARAN (BERRIA)

Jose Irazu izeneko soldadu bat Madrilan, Espainia plazan. Hilean behin daukan baimena aprobetxatuta, hara iritsi eta lagun talde bat ikusi du munduko gosearen aurka hizketan eta kantuz. Geratu egin da gaztea, entzutera. Halako batean, inguruan begiratu, eta bakarrik dagoela ohartu da. Horrelako bidegabekeriaren aurrean hantxe sentitu duen indiferentziak hunkitu du.

Aspaldiko zertzelada hori dago Bernardo Atxagaren (Asteasu, 1951) nobela berriaren sorburuan. Bidegabekeriaren aurrean mila mezu iristen direla, entzunezin bilakatu arte. «Pentsatu dut, beraz, literaturak beste forma eta beste hizkera bat behar duela hori konartzeko. Eta atzera begiratu eta Lezio bat ostrukari buruz hartu nuenan ohartu nintzen hori zela orain hitz egiteko behar nuen modua».

Eta Kongoraino joan da, XX. menderen hasierara, eta han, Belgikako Leopoldo II.a erregearen zerbitzura dauden militarren taldean girotu du nobela berria. Eta bidegabekeriari leihotik begiratu behar ziola erabaki du. «Horrelako egoera bortitzen aurrean, komikotasun siniestroa erabili behar nuela pentsatu nuen. Eta Kongoraino joatea erabaki nuen Obama edo Liput bezalako geografia bat behar nuelako».

Distantzia hartzeko?

Ez, militarrek hartu nahi nituelako pertsonaia nagusitzat.

Zergatik militarrek?

Militarrena zabalera unibertsala duen eredu bat da. Ez da ofizio bat. Esate baterako, Grezian atleta izan zena, edo kristauntzat gurutzean iltzaturiko heroia bezala, gure gizararte gero eta indar handiagoa hartu dute militarren ereduak, militarismoak, militarren jarraiek eta militarrek hitz egiteko moduak.

Atzo, Donostiako Koldo Mitxelena kulturunean, euskarazko argitalpena aurkeztu zuten. Jatorrizkoa. Laster, gaztelania, katalan eta galizierazko itzulpenak kalera-tuko dituzte. Egileak eta Asun Ga-



JUAN CARLOS RUIZ / ARGAZKI PRESS

rikano edizioaren zuzentzaileak egin behar izan duten lan beltza kontuan hartuta, hurrengoan ez duela horrela egingo garbi dauka egileak. Hain zuzen ere, Garikano-oren ekarpena nabarmendu zuen atzoko aurkezpenean. «Nik askotan aitortu dut nire literatura ibilbidetan erabakigarria izan dela. Joan den mendeko idazle bakarti, ganbarako eta jenial horren irudia ondo dago, baina gaur egun uste dut gauzak taldean egiten direla

'Markak' liburuarekin alderatuta, uste dut hau esanguratsuagoa dela askoz ere

Obamak eta Yangambik antz handia dute, baso sakona dago bietan

Entretanimenduzko literatura? Hainbeste arau ustel onartu behar dira!

askoz gehiago. Horixe transmititu nahiko nieke gazteei, behintzat».

Militarrak, beraz. Zer interesatzen zaizu bereziki? Jarrera autoritarioa, armekiko lilura, hierarkiaren arabera antolamendua?

Hori dena eta gehiago. Nikez ditut pertsonaia halako ideia batzuen ontzi bilakatzen. Kontrako bidea egiten dut. Nire memoria, zoritxarrez eta zorionez, izugarri ona denez, makina bat xehetasun gogoratzen ditut, eta xehetasun horiek sartzen ditudan neurrian, nire us-tea da munduko militar guztiez eta munduko jarrera militar guztiez ari naizela hitz egiten. Ezaugarriez galdetu didazu. Ezaugarrietako bat da, esaterako hilketarako zilegitasuna izatea. Eta ez da txorakeria.

Hori da liburuan kontatu nahi zenuena, ezta? Krudelkeria, baina aseptikotasunetik. Eskubide hori normaltzat daukat militarren ikuspegitik.

Hori konartzeko ikusten dudan modu bakarra da hemen egin dadana. Hizkera ia absurdoaren bidez.

Eta zergatik ez salaketa zuzena erabili?

Ezinezkoa delako. Kontraesana delako, berez. Salaketa zuzena egunero egiten da. Gaur ehun mila artikulutan egin da horren salaketa zuzena. Eta hori, lehengo eta behin, gure munduaren paretatik sortzen den beste musika bat gehiago da. Inork entzuten ez due-

na. Horrek esan nahi du Amnesty Internationalek ez duela salaketa zuzena egin behar? Egin behar du, zalantzarik gabe. Hor beste ardatz bat dago: ekintza. Alk eskatutako gutun bat idazten dudanean, edo salaketa zuzena egiten dudanean, edo dirua ematen dudanean, ekin-tza dut gogoan. Literaturan, edo kazetaritzan, ez da horrela. Literatura, gaur egun, ahalik eta lur esanguratsuenetara eramane nahi-ko nuke testua. Eta, horregatik, konparazioa egin gabe, baina Markak eta hau alderatuta, uste dut askoz esanguratsuago dela liburu hau Markak baino. Nahiz eta Markak horretan salaketa zuzena da-geon.

Injustizia da, hala ere, bi liburuen ardatza, ezta? Horri buruzko ari-keta literarioa. Zergatik kezka-tzen zaitu hainbeste?

Nire iritzia da literatura, berez, oso gutxi dela. Bada artea edo literatu-ra inolako gizarte gune edo arazo zehatzekin lotu gabea. Kasu bate-an pintura dekoratiboa da, eta bes-tean, berriz, entretenimenduzko literatura. Nire ustez, hori, sortzez, bigarren mailako zerbait da. Ondo dago, baina nik dekorazio batengatik ez nuke lan hori egingo. Deko-radore bat literaturan? Entreteni-menduzko literatura? Hainbeste arau ustel onartu behar da! Nobela historikoan, bistakoa da, testu era-bat gezurti eta goitiki behera fal-tsuak daude... Ez nuke hori ezta aintzat hartuko ere. Oso maila ba-xuko literatura iruditzen zait, eta oso maila baxuko artea. Aukeraba-karra da gai nagusiekin lotura egi-

te. Bidegabekeriarekin edo. Ser-moi batekin egiten baduzu, edo sa-laketa batekin, gaur egun ezin da. Lengoaia hain dago erabilia, gaiz-totua, erosia... ezin dela egin. Ho-rregatik da, hain zuzen ere, kontra-esan bat.

Eta zein dira, zuretzako, bidegabe-keria agerikoenak?

Bidegabekeriari handienak lagun hurkoen hilketarekin lotuta daude. Nobelari dagokionez, bide-gabekeria da maparen goialdean La belle époque zela, eta hegoalde-an, han, Afrikan, 10-15 milioi per-sona hil egin zituztela. Baina zein da bidegabekeria are eta handia-go? Ba, nahiz eta Mark Twainek idatzi sekulako bidegabekeria izan zela, edo Arthur Conan Doylek ho-rren aurkako liburuak idatzi, ba hala eta guztiz ere pasatu direla ehun urte, eta horko genozidaren omeneko monumentuak hantxe daudela. Heriotza, eta, gainera, burla historikoa. Baina hori, zori-xarrez, gure eguneroko airea da. Hor bizi gara.

Liburuan biktimek ez dute hitz egiten.

Hain zuzen ere. Nire ustez, hori da biktimek hitz egiteko ia modu ba-karra. Kontrakoa faltsua da. Ez da egin biktimek hitz egiten dutela. Gero hitz egiten dute, guk jartzen dugun ikusizunerako. Biktimek hitz egiten dutenean, normalean, arloz aldatzen gara, eta sartzen gara denik eta arlorik gezurtiene-an: psikologikoan. Gaur eta bihar notiziak aterako dira txalupa bate-an hil direnei buruz. Eta gero atera-rako da erreportaje bat salbatu di-

renen inguruan. Eta zer ikusten dugu? Psikologia. Horrek bakarrik guri egiten digu on. Azken batean, biktimek ez badira hiltzen, baliatzen ditugu gure kontzientzia ona bideratzeko. Baina auzia ez da hori. Ez da psikologikoa, objektibo-a da.

Poesiaren ideiarekin erabilera ere harrigarria da. Liburuko buruz-giak poesia maite du. Poeta da, izan.

Ideologiak hitz egin dugu. Litera-turen nire kontzepzioa hori da, es-tereotipoak apurtzea edo, gutxie-nez, bultzatzea. La belle époque-ko ideologia garatzen duen poesiaren parean dago idazlea eta militarra bereizten duen ideologia. Hor, idazlea eta militarrik bi irudi kontrajarrigisaikusten dira. Poeta, intelektual; militarra, kultura eta sentiberatasunik eza. Baina histo-riak zer erakusten du? Kontrakoa. Hitler, ezizenez, poeta zela. Hei-deggerrek egiten zituela interpre-tazioak alderdiaren ad maioiren glorian. Espainian Unamuno eta Millan-Astray zeuden. Eta Milla-nek samuraien kodea itzuli zuen, eta testua ez da batera makala. Esan nahi dudana da liburu hone-tan denak direla intentzio handiak. Hori inork ez dit ukatuko.

Kontrazalean jartzen du nobela berria «eten bat» dela zure ibile-ran. Hala da benetan?

Bai, etena da. Teoria edo saiakera bat balitz, edo Obabakoak saiakera balitz, ez genuke esango aldaketa handirik dagoenik, hor mezuza eta teoria delako garrantzizkoena. Baina hau literatura da, fikzioa. Eta

hor garrantzitsua atzean dagoe-na da. Hau da, nobelaren lehen egin beharrekoa da nobela izatea: pertsoniak, objektuak erabili be-har dituzu. Eta Obaba buruan neu-kanean, pertsoniak, paisaia, jarre-rak, hori guztia neukan buruan. Atzeko kultura ere bai. Guk denok ezagutzeko modukoa behar zuen. Kasu honetan, militarrek, postu militarrek, antz handiagoa dauka-te nik ezagututako soldadu giroa-reakin

Baina Kongoko giro honek, Yan-gambi inguruak, Obabatik badu asko, ezta? Inguru itogarri samarra, nor bere buruan aho-tsak entzuten dituzten pertso-niak...

Bai, noski. Idazle baten ibileran, li-buru bakoitza berria da neurri ba-tean. Esate baterako, nobela hone-tako Chrysostome hartzen baldin badugu, Britancourt, Belgika eta hori guztia dago, baina berez neka-zari bat da. Elizak formatu duen norbait. Hemengo pertsonaia bat da berez. Obabak eta Yangambik antz handia dute. Gogoan dut Montxo Armendarizek galdetu zi-dala Obaba niretzako zer zen. Eta esan nion: 'funtsezkoena da herri bat dela, dena basoz inguratuta'. Yangambi basoz inguratuta dago, eta isolatuta. Teknika narratiboan ere badira berdintasunak. Gizona bere bakardadean lanean barne ahots hori dago, Behi euskaldun baten memoriak horretan ere bai. Eta hemen Donatien beti ari da bere anaiekin hizketan... Askog-zatu dut Donatien anai horie-kin guztiekin.

«Aldaketa? Fede handia behar da»

A. BARANDIARAN

Nevadan (AEB) atondu du Ber-nardo Atxagak nobela berria, eta han bizitakoak ikuskera aldatu diola azpimarratu du. Baina, Euskal Herriaren berriro, ondo sustrai-tuta dagoela antzematen zaio idaz-leari.

Renon eman duzu azken urtea, nobela hau prestatzen. Oso gar-rantzitsua izan da esperientzia. Zergatik?

Egia esanda, oraindik ez dakit no-raino izan den garrantzitsua. Ez dakit zenbat aldiz gertatzen diren horrelako gauzak, baina behar nuen unen behar nuen tokia esku-ria etorri zitaidan. Idazle bezala, eta pertsona bezala, behar nuen... Ez dakit nola azaldu, baina azkar esateko: isiltasun gehiago. Nire bu-rua aztertu behar nuen. Metafora bat erabiltzeko, barrura sartu be-har nuen nire ordura arteko mun-dua, poltsa batean, itxi, eta gorde barruan. Eta utzi itxita. Nire mun-du simbolikoarekin egin dudanak ez dakit zer-nolako eragina izango duen nire eguneroko bizitzan, baina uste dut eugndokoa izango duela. Irudipena daukat lasterketa

batean nagoela, tropelean, eta bat-batean, ez dakidala non dauden besteak. Ez dakit ezta behar den errepidean nagoen ere. Baina ez da inola ere larritasuna. Kontrakoa **Isiltasuna aipatu duzu, baina hona etorri eta berriro burrunba, ezta?**

Izugarria da, benetan. Hauteskundeak izan dira, eta bar-dirudi hogeita hamar urte gober-nuan egon direnagok gobernutik kanpo gera daitezkeela. Nola bizi duzu hori?

Ekintza bera, gertaera bera, alda-keta bere horretan, izan Polonian, edo Kalifornian edo hemen, onu-ragarria da. Baina fede handia eduki beharra dago, lehenago ainge-ruetan sinestea pentsarazten igun fede bera alegia, pentsatzeko he-mengo PSEk eta PPK berez egoera positibo horrekin, hau da, aldake-tako aukerarekin, ezer egingo du-tena sinisteko. Askok sinetsi behar da, e!

PSE-EEK keinu batzuk egin nahi izan dizkire, hauteskunde garaian, euskal kulturaren inguruan ari di-renei. Eta salatu du euskara «ar-matza» hartu izan dela maiz.

Begira, ez gara ibiliko hinki-hanka. PSEren hitz egiteko modua buru-tezina iruditzen zait. Badirudi hitz egiten dutenean bi koilara dauzka-tela. Horietako batean marmelada dute, eta haien ekintza guztiak marmelada horrekin nahasten dute. Eta ahaztu egiten zaie parti-du horrek atzean daukan historia apur bat iluna. Nobelan bertan ai-patzen da Monsieur X delakoa. Esaterako, azkar asko ahazten zaie euskal kulturak ez diola ezer ere zor hor dabilen jendea. Egin den guztia beste aldeak egin du. [Ma-rio] Oinaindia zenak esaten zuen ea zer egin duten abertzaleek euskal kulturaren alde. Ez neukalako au-rrean, baina esango nion, ba esate baterako, Bilbon, *Anaitasuna* ize-neko aldikaria erosi, eta eutsi, nahiz eta euskaraz ez jakin. Hori egin du, esaterako, EAJk, Bilbon. Eta orain, besteak daukate errua! Ez nuke nahi inork nire aurrrean esatea joera abetzaleko jendeak erabili duela euskara arma bezala. Ez, barkatu: arma bezala zuk era-bili duzu bestea. Ez duzu aintzat hartu, eta kondenatu duzu ostra-zismora. Eta, gainera, zabaldu di-

tuzu oso iritzi ezkorrak. Ahazten dute, esaterako, Txiki Benegasek zer gauzak esaten zituen. Orduan, marmelada zabalzen hasten dire-nean ezin ditut sufritu.

Ibili izan zara zu ere politikan, le-hen orain baino askoz gehiago.

Bai, hori ere amaitu da. Literaturan bezala, salaketa zuzena entzunezi-na da. Eta Ezker Batuari hori gerta-tu zaio. Gizarteak ez du mezuza ulertu, diote. Baina hartu «*milaka etxebizitza egin ditugu*» esaldi hori eta jendea belarri batetik sartu eta bestetik ateratzen zaio. Gizar-tearen buruan beste gauza batzuk daude. Badirudi ezker klasikoaren eskema bokatuta dela.

Orain, jendearen kezken artean Athletic eta Kopa daude...

Baina ni neroni hantxe egon nin-tzen isil-isilik inori esan gabe, hari-k eta dena amaitu zen arte! Eta ikus-ten da jendearen barruan dagoen beharra, emozioa.

Herrigo gara, beraz, hiri baino?

Bai, uste dut oraindik askoz indar handiagoa dutela aipatzen ez di-ren bihotzaren kontuek, aipatzen diren buruko arrazoenamenduek baino.

Egun borobila atzokoa, ez aurreko Zuhaitzen Azokan bezala

PABLO ALBERDI

Aurtengo Zuhaitzen Azoka eguna bitan ospatu da Tolosan. Aurrene-ko aldiari eguraldi txarrak ez zuen batere lagundu, baina atzo beste kontu bat izan zen. Eguzkia lagun, asko izan ziren Tolosako ka-lerari irten zirenak, eta azokatik pasa zirenak.

Triangulo plazako zuhaitzen postuetan jende ugari izan zen eta eguna orain dela hila beteteko baina askoz alaiagoa izan zen. Es-kaintza berdintsua, baina salmen-tak askoz hobeak.

Berdura plazan aurtengo lehe-nengo pepino, piparra eta txorize-ro landareak ikusi ahal izan geni-tuen, eta hauekin, zainzuri landa-reak ere bai. Udaberria iritsi zaigula esan beharra dago atzo ikusitakoaren arabera.

» ATZOKO AZOKA

BERDURA PLAZA Merk. Gares.

Landareak	
Azalea	8,50 -
Xarbota	4,00 6,00
Kalendula	2,50 -
Ziklamena	5,50 -
Erroeroa	4,00 6,00
Surfinia	2,40 -
Lobelia	4,50 -
Biola	3,00 -
Salbia	1,00 1,20
Krisantemoa	12,00 20,00
Klabeleda	2,80 4,00

BERTAKO PRODUKTUAK

Barazkiak (kiloa)	
Babarrun zuria	8,00 -
Tolosako babarruna	10,00 12,00
Tomatea	2,00 4,00
Baina	4,00 6,00
Porrua	1,00 3,00
Kalabaza	1,50 3,00

Barazkiak (unitatea)	
Kalabazina	0,72 -
Trebisosa	0,90 -
Txikoria	1,00 1,25
Azalorea	1,00 -

Besteak	
Ogi biologikoa (900gr)	3,20 -
Arraultzak	1,10 2,40
Irasagarra	3,00 6,00

Gaztak	
Gazta berria	17,00 -
Ardigazta	14,00 18,00

PRODUKTU EKOLOGIKOAK

Sagarra	2,00 3,00
Kalabaza	1,60 3,04
Azenarioa	2,00 2,50
Baratzuria	1,60 6,00
Aza	2,50 3,00
Letxua	1,00 -
Ahuntz gazta	3,00 -
Tipula	1,75 2,00
Dilistak	2,40 -



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Maider Garaikoetxea.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@tolosaldeko hitza.info.
Ibarralde: 687 410 032. ibarralde@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leizaldea: 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta
Leizaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Ikuskizunak

■ **Tolosa.** Ahoz aho jaialdiaren baitan, ondorengo saioak izango dira gaur: Maite Frankoren ipuin kontaketa, Bonberenean 11:00etan; Boniface Ofogo eta Antonio Gonzalez, Otsabi elkartearen 16:00etan; Ana Torrellas eta Christian Atanasio, San Esteban auzo elkartearen, 18:00etan; Flora Ovalles, Amaro auzo elkartearen, 20:00etan.

■ **Villabona.** Hipo eta Tomax pailazoak, Gurea aretoan 17:00etan.

Kirolak

■ **Asteasu.** Herri kirol jaialdia frontoian 17:30ean: Joxe Mendizabal 62 urteko aizkolaria 3 metroko diametroko enborrarekin, Anjel Arrospideren laguntzarekin, eta Urdax Magunazelaia 11 urteko harrijasotzailea 105 kiloko harriarekin. Antolatzailea: Txolarre irratia.
■ **Tolosa.** Saskibaloiko teknifikazio saio ludikoa Usabal kiroldegian 11:00etatik 12:30era, 1997 eta 1998 urtean jaiotakoentzat.

Deialdiak

■ **Albiztur.** Hilaren 28an Adunako Aburuza sagardotegira irteera aurtobusez, ondoren Hernanira joateko aukerarekin. Izena udaletxean eman behar da.
■ **Tolosa.** San Jose zubirako Tuc de Mulleres eta Besiberrira (Aran bailara) irteera antolatuta du Oargik. Izena elkartearen eman daiteke.


Zinema

■ **Tolosa.** Leidor aretoan, gaur: 17:00etan, *El lince perdido*, 19:30ean, *El hijo de Rambow* eta 22:30ean, *Revolutionary road*. Bihar (ikuslearen eguna): 20:30ean, *Revolutionary road*.
■ **Villabona.** Gurea aretoan, gaur: 19:30ean, *Camino*. Bihar (ikuslearen eguna): 21:30ean, *Camino*.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
■ **Tolosa.** Olarreaga, J. Kooreo kalea, 2. 943 67 0128.
■ **Leitza.** Larraia, M.I. Elbarren, 95. 112.
Bihar
■ **Tolosa.** Olarreaga, M. Martin Jose Iraola, 10. 943 67 24 38.
■ **Betelu.** Carrillo, A. Kale Nagusia, 5. 112.
■ **Irurtzun.** Mutiloa, A. M. San Martin, 5. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esaneri irizien erantzunik.



Ahoz ahoko azken hitzak entzungo dira

TOLOSA ■ Zazpi egunetan hitza protagonista izan ostean, gaur mututuko da Ahoz aho jaialdia. Herenegun gauetan izan zen egitarauko ekitaldi nagusietako bat, Asvinenaren Irekiera Gala hain zuzen ere. Leidor antzokian elkartu ziren aurtengo jaialdian parte hartu duten artisauek gehienak.

Bakoitzak emanalditxo bat eskaini zuen, hala, estilo ezberdinak ikusteko aukera izan zelarik. Gaur izango dira jaialdiko azken saioak. Goizean izango da lehedabizikoa Maite Frankoren eskutik, eta azkena, iluntzean izango da, Flora Ovallesek eskainita. I. TERRADILLOS / E. ZEZZA

A Agurrak



Urte askoan!

Jon Lopetegi Arrue (Tolosa).
Gaur 7 urte. Zorionak eta muxu asko etxeko guztien partetik.



Urte askoan Pako!

Zorionak biharko partez txepela! Ea zure EuskalMobila bigarren filan aparkatzeari uzten diozun!

tolosaldeko, leizaldeko eta goierriko

ostalaritza Gida2009

Jatetxeak, sagartegiak, erretegiak eta pintxo tabernak biltzen dituen gidarik osatuena

..orain tolosaldeko hitza.info-n ere bai!

Jatetxeen informazioa osatuena: argazkiak, informazio erabilgarria, iragarlearen webgunera link zuzena.

Bilatzaile erabilgarria

Hitza guztien gida hitza.info-n